



2008ko martxoaren 31tik apirilaren 11ra. Koordinazioa: Azucena Vieites.

ADIERAZPEN ERRADIKALAK

serigrafia / praktika artistikoa /
DIY kultura / feminismoak /
lan kolektiboa





2008ko martxoaren 31tik apirilaren 11ra. Koordinazioa: Azucena Vieites.

ADIERAZPEN ERRADIKALAK

serigrafia / praktika artistikoa / DIY kultura / feminismoak / lan kolektiboa

Azucena Vieites-ek eskainitako tailerra. Elkarlana: Jon Mikel Euba.
Koordinazio teknikoak: Nerea López.

Ordutegia: astelehenetik ostiralera. 10:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00.
Partehartzaileak: gehienez 10.

Tailerrak serigrafia baliabide gisa erabiltzen duten lan egiteko zenbait moduren inguruko esperientzia eta hausnarketa izango du abiapuntua: DIY (*Do It Yourself*) kultura, feminismoak eta lan kolektiboa. Nik neuk neure ibilbidean, gure ingurua ezagutzeko, landu ditudan gaiak dira. Hainbat zentzu-geruza elkarrekin egotea ahalbidetzen duten hurbilketen bidez gaur-gaurko ikusizko kultura irudikatzeke tokiak.

Edozein praktika artistiko gauzatzeko, biziki garrantzitsua da lan egiteko tresnen aurrean kokatzeko eta diskurtsoa egituratzeko modua. Horregatik, hemen aurkezten dugun proposamenak oinarri izango du serigrafia teknika bezala erabiltzeak emandako esperientzia, arreta lan-prozesuan ipiniz eta testuinguru berrietara hedatuz. Tailerrean jorratuko ditugun gaiak eta ideiak ulertzeko interesgarriak diren zenbait lan aztertuko ditugu, Jon Mikel Eubak lagunduko digu horretan. Batzuetan konbentzio huts batera mugatuta geratzen den kolektibo hitzaren esanahia zabaldu egingo da. Osterantzean, serigrafiaren erabileran bertan inplizitu ageri den hainbat alderdi garatuko dira, hala nola: originala, kopia, obra bakarra, seriatua edo kopiagarria.

Praktika artistikoak materializazio edo gauzatze teknika jakin batekin du zerikusia, baita objektua ukatzeko edo zalantzan jartzeko parametroetatik lanean ari garenean ere: Zergatik, bada, teknika hau eta ez beste bat? Zer dakar berekin horrela eta ez beste era batean egiteak? Tailerraren helburua serigrafia baliatuz sormen prozesu bat hasi eta amaitzea baino, hasi eta proiektua gauzatzeko lanaldian sortzen diren aukera ezberdinez jabetzea izango da.

Azucena Vietes

Ekoizpena: Arteleku-Diputación Foral de Gipuzkoa.